


ATARIA.EUS · 107.6 FM
Osteguna, 2026ko maiatzaren 14a

Ongizatea

GEHIGARRIA



ONGIZATEA

Ongizatea eskura

Tolosaldeak ongizateari eskainitako aukera zabala du: orriotan ongizateari lotuta ditugun profesionalen sorta ederra duzue eskura. Ongizate osoa lortzeko alderdi asko hartu behar baitira kontuan: ikusmena zaindu behar da, gorputzeko gihar eta atalak mimatu behar dira, hortzeriari erreparatu... Osasuna zaintzeko eta bizi kalitate ona lortzeko zentro ugari daude eta horietara gerturatzeko aukera izango duzu gehigarri honetan. Zabaldu gehigarria eta murgildu ongizatearen munduan.



SABERRI

Lurrindegia · Kosmetika · Estetika



943 67 11 28 · Kale Nagusia 17 · TOLOSA

 www.saberri.com

Aurpegiko tratamendua

- Sothys Dermo Booster berritzailea
- Sothys garbiketa eta tratamendua
 - Utsukusy Enpitsu arkatza

Begirada

- Betileen lifting-a
- Bekainetako laminatua
- Begirada-tratamendua

Gorputzeko tratamenduak

- Sothys intentsiboa
 - Masajea
- Presoterapia

Makillajea

- Ikastaroa
- Makillatzea

Manikura eta pedikura

- Normala
- Erdi-iraunkorra- OPI

Depilazioa

- SHR laser sistema
- Aurpegiko depilazioa



Osteguna,
2026ko maiatzaren 14a

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 95€
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeke Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoeta: 687 410 022.
anoeta@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118.
ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Tolosaldeko gizarte eragileak

ONGIZATEA

Haurraren garapen osasuntsua helburu

Hamar urte baino gehiago daramatzate Tolosako Naia Zentroan haurtzaroari arreta, prebentzioa eta laguntza terapeutikoa ematen.

Jolasaren bitartez, familia eta bere ingurunea kontuan hartuta, haurraren garapen osasuntsua sustatzen duen gune espezializatua da Naia. 0-12 urte bitarteko haurrekin terapia saioak egiten dituzte, nola taldean hala banaka. Honako zerbitzuak eskaintzen ditu zentroak: haur psikologia, jolas terapia, psikomotritzitatea, arreta goiztiarra-logopedia eta familia aholkularitza. Honez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako Arreta Goiztiarreko zentroa da Naia.

Familia-lotura da funtsezko abiapuntua. Haurrak euren eraldaketan izaki aktiboak eta bere prozesuaren protagonista bihurtzen dira. Gorputza, mugimendua eta jolasa giltzarri dira lehen haurtzaroko garapenean. Orientazioa eta aholkularitzaren bitartez, gogoetarako espazio kolaboratiboa sortzen da, non familiei haurtzaroaren prozesua hobeto ulertzeko eta horri ekiteko beharrezko sostengua ahalbidetzen zaien.



Naia Haurren Garapenerako zentroa

Helbidea. Zabalarreta parkea 4, Tolosa.

Telefono zenbakia. 688 845 538

Webgunea. nahiahaurgarapena.eus

Nori dago zuzendua.

Garapen arazoak dituzten edo horiek nozitzeko arriskua izan dezaketen 0-12 urteko haurrei; alterazio psikomotorrak, portaera alterazioak, hizkuntza eta garapen atzerapenak, emozio zailtasunak, harreman zailtasunak, ikasketa-prozesuetan zailtasunak, TEA, goiztiartasuna, adopzioa eta garapenarekin zerikusia duten bestelako arazoak.



TRATAMENDU
AUKERA ZABALA



Orduetgia

Astelehena eta larunbata 09:00 -13:00

Asteartetik ostiralera 09:00 -13:00 eta 15:30 -19:30

Nafarroa etorbidea 1, behea

TOLOSA

943 968 993

ONGIZATEA

Irribarre osasuntsu baten alde

Merkatuko material onenei eta profesional talde kualifikatu bati esker, hortz tratamendu ugari eskaintzen dituzte Zizurkilgo Irrihortz Klinikak. Edozein pertsona eroso sentiarazten dute, eta ohitura onak hartzen laguntzen diote, hortz osasuntsu, garbi eta sendoak izan ditzan.

Nerea eta Aintzane Irurzun ahizpek duela lau urte erronka berri bati eutsi zioten: euren hortz klinika propioa irekitzea. Bakoitza hortz klinika desberdin batean ari zen lanean, eta euren ibilbide profesionalak bateratzea eta ametsa betetzea erabaki zuten. Duela lau urte ireki zuten Irrihortz Klinika Zizurkilgo Ernio Bidea auzoan. Hortzetako osasunari eskaintzeko espazio zabal eta argitsua da, eta profesional talde kualifikatua dute bertan, hortz tratamendu ugari eskainiz.

Zerbitzu integrala eskaintzen dute Irrihortz Klinikak, eta lantalde gazte eta sendoa dute; Nerea eta Aintzane higienistak eta arduradunak dira, eta kudeaketa eta administrazio lanez ere arduratzen dira. Horiekin batera aritzen dira lanean Olatz Telletxea kirurgialaria eta Irene Sanchez ortodontista.

Etxean bezala sentituz

Askorentzat deserosoa edo desatsegina izan daiteke hortz klinikara joatea, eta hori kontuan hartzen dute Irrihortzen. Klinikak tratatzea erabakitzen duen edozein pertsonari eroso sentiarazten diote eta behar den konfiantza ematen diote, hurbiltasuna eta goxotasuna baitira euren ezaugarriak. Horregatik, giro atsegina eta lasaia aurkitu daiteke bertan, etxean bezala sentitzeko modukoa.

Espazioa txikia, argitsua eta goxoa da. Bezeroak joaten direnean esperientzia atsegina izatea eta gustura sentitzea nahi dute, eta horretako, txoko eta ezaugarri bakoitza mimo handiz zaintzen dute. Esaterako, musika lasaia eta usain goxoa dituzte, eta gertuko arreta eskaintzen dute. Itxaron gela oso txikia dute, normalean bezeroak garaiz artatzen baitituzte, eta txikienezako jolas txokoa ere badute.

Askotariko tratamenduak

Merkatuko material onenekin, ekipu tekniko modernoekin eta profesional talde kualifikatu baten eskutik, hortz tratamendu ugari eskaintzen dituzte Irrihortzen. Orokorrean, enpasteak edota garbiketarako egiten dituzte, baina hortz estetika ere lantzen dute, bezeroak eroso sentitu daitezkeen euren irri-



barrearekin. Hala ere, beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen dituzte, besteak beste, ahoan, maxilarretan eta gainerako ehunetan sortzen diren afekzioen diagnostikoa eta tratamendu kirurgikoa, eta haur zein helduen ortodontzia; ahoaren hezurak eta hortzak ondo alienatuta egon daitezkeen bracketak edo ortodontzia ikusezina erabiltzen dituzte. Tratamendu endodontikoak ere egiten dituzte, txantxarra, traumatismoak

edo hortzetako hausturak tratatzeko, edota hortzari eragin diezaioketen beste prozesu patologiko batzuei aurre egiteko.

Panoramika bat

Bezero bakoitzari, lehen bisitan, panoramika bat egiten diote, ahoa nola dagoen ikusteko. Sistema digitalizatuak dituzte horretarako eta sistema horiek, gainera, momentuan ahoa zein egoeratan dagoen



Nerea eta Aintzane Irurzun, eta Olatz Telletxea Irrihortz Klinikako sarreran.



IRRIHORTZ KLINIKA

Helbidea.

Ernio Bidea 12, A behea, Zizurkil.

Telefono zenbakiak.

943 32 66 20

650 01 75 69

Posta elektronikoa.

irrihortz@gmail.com

Instagram.

@irrihortz_klinika

ikusteaz gain, tratamendua egin ostean nola geratu daitekeen ikusteko aukera eskaintzen dute. Lehen bisita horren ondoren, egoera aztertzen dute, eta aukera posible guztiak jartzen dituzte mahai gainean, bezeroekin partekatuzko.

Bezeroa bere osotasunean baloratzea gustatzen zaie Irrihortz Klinikak, ahoan ez baitaude hortzak bakarrik. Horregatik, barruko zein inguruko muskulatura aztertu ostean, bezero bakoitzari hobekien datorkion tratamendua egiten diote, bakoitzaren beharrak kontuan hartuta. Horretarako, zerbitzu osatuena eskaintzeko moduko gailuak dituzte, hala nola, 3D eskannerra. Hala ere, etorkizunean teknologian inbertitzen jarraitzeko asmoa dute, lesioak ahalik eta azkarren diagnostikatu eta tratatzeko helburuarekin.

Ohitura onak sortzen

Dentistarengana joatea garrantzitsua dela diote Irrihortz Klinikak, «ahoko arazo ezberdinen diagnostiko goiztiarra egiteko, etxeko txikien hazkuntza ondo gertatzen ari dela ziurtatzeko, aho garbiketa egokia dugula ziurtatzeko eta osasun ohitura egokiak garatzeko».

Aho osasunaren garrantzia erakustea ezinbestekoa dela uste dute, eta horretarako, bezeroei ohitura onak hartzen laguntzen diete hortz osasuntsu, garbi eta sendoak izan ditzaten. Kontsultan beharrezko informazioa emateaz gain, sare sozialetan (@irrihortz_klinika) ere zabaltzen dute.

ONGIZATEA

Erleen airea, osasun arnasa

Osasuntsu egon nahi duenak ezinbestean zaintzen du zer jaten eta edaten duen, beraz, zergatik ez egin gauza bera arnasten duenarekin? Erlauntzako aireak denetariko onurak ditu askotariko gaitzen aurrean. Ohiko botikekin eta tratamenduekin aurrerapenik edo eraginik nabaritzen ez duenak, alternatiba natural bat probatzeko aukera du.

Udaberri eta uda hasiera garaian ohikoa izaten da arnasbideetako arazoak aragotzea: alergiak, asma, katarroak... Eta horiek bezain ohikoak eta errepikakorrek izaten dira botikak eta erremedioak ere. Horiakin gustura ez daudenentzat, ordea, bada beste aukera bat Tolosaldean, hain zuzen, erle airea. Jakina denez, jaten eta edaten dugunak eragina du gure osasunean, eta ez al da hori bezain garrantzitsua zer arnasten dugun? Ez da inongo sekretua mendian zein basoan arnasten dugun aireak onurak dituela osasunarentzat, batez ere, kaleko airearen aldean. Bada, airearen osagai osasuntsu horiek biderkatu egiten dira erlauntza bateko airean, eta kalean arnas genezakeen airea baino hamar aldiz kalitate hobea izatera ere irits daiteke bertakoa.

Janariak eta edariak modu jarraikor batean zaintzen dira, beraz, zergatik ez egin gauza bera airearekin? Elikadura ohituren arabera aldatzen da gure osasuna, bada, aireak ere eragiten du horretan. Elikagai bezala ikusi behar da eta, horretan, kalitate handienekoa da erlauntzako airea.

Zer da erlauntzako airea?

Alegiatik Orendainera bidean dauden instalazioetan bi zerbitzu eskaintzen dituzte. Etxoletako batean bost kutxa daude, eta horietako bakoitzak erlauntza bat du barruan. Erabiltzaile bakoitzak erauzgailu bat izango du maskara txiki batekin, horrela, erlauntzako airea arnas dezan; ordu erdi inguruko saioak egiten dira bertan. Beste etxolan, berriz, erleen sauna probatu daiteke: egurrezko bi ohe jarri dituzte eta bakoitzak hiruna erlauntza ditu azpian, sare xehe batekin instalita. Erleek 35 graduko tenperatura izaten dute, eta atmosfera berezia sortzen da bertan; ordubeteko saioak izaten dira.

Bistan da zuzenagoa litzatekeela lehena, erlauntzako airea zuzenean arnasten duelako erabiltzaileak. Bigarrena, berriz, leunagoa litzateke, geldoagoa. Dena dela, bietan lortzen da giro patxadatsu, leun eta epel bat, zeina, era berean, onuragarria den erlaxatzeko eta estresa lantzeko.

Arduradunek azaldu dute hamar saio inguru behar izaten direla eragina nabaritzeko, baina soilik erreferentzia moduan erabiltzen dute kopuru hori. Hain zuzen, bonu bereziak ere eskaintzen dituzte, hamar saioak egitea eko-



Ezkerrean erlauntzako airea arnasteko etxola; eskuinean, erleen sauna. ATARIA

nomikoagoa izan dadin. Kontatu dute pertsona batetik bestera aldatu egiten dela onura nabaritzeko saio kopurua: «Batek nahikoa izango du bost saioekin; eta, beste batek, ez du aldaketarik nabaritutako hamabost saiotan ere». Dena dela, egokiena probatzea eta eragina norberak neurtzea dela nabarmendu dute.

Onuragarria osasunarentzat

Arnasbideetan arazoak dituzten pertsonak dira erabiltzaile gehienak, baina badituzte parkinsona eta bestelako arazoak dituzten erabiltzaileak ere. Hain zuzen, tratamendua probatu ondoren, bizi kalitatean onurak nabaritu dituzte erabiltzaileek. Arduradunek kontatu dute eragina ezberdina dela pertsona-

ren eta gaixotasun motaren arabera: «Bereziki onuragarria da parkinson mota batzuentzat, eta berdin arnasbideetako arazo batzuentzat ere».

Hori horrela, nabarmendu dute arnas bideetarako ez ezik, orokorrean osasunerako dela onuragarria erlauntzako airea: «Pertsona bakoitzaren arabera aldatu egiten da eragina noiz sumatzen duten. Bestalde, tratamenduak jarraikorra izan behar du, utziz gero onurak pixkanaka galdu egiten baitira».

Era berean, ageriko onura horiez gain, sistema immunologikoa indartzeko ere balio duela uste dute arduradunek. «Immunizazioa hobetzen dela ez gara berehalakoan ohartzeko; baina indartzeko da. Gaixotasun gutxiago izango ditu sistema immunologikoa indartsu



Erlauntzako airea arnasteko etxolaren barrualdea. ATARIA

ARNASTU ERLAUNTZAKO
AIREAREN ONURAK!

Erlauntzako airea

Helbidea. Alegiatik Orendainerako errepidea, 3. kilometroa.
Telefono zenbakiak.
618 254 971 / 639 187 809

bat duen pertsona batek, baina zaila da hori neurtzea. Edo, gaixotuta ere, sintomak arinagoak izatea eragingo du».

Alternatiba natural bat

Medikuek proposatzen dituzten ohiko botikekin eta tratamenduekin nekaztuta daudenek aukera paregabea dute zerbait ezberdina probatzeko. Onura guzti-guztiak oraindik ezagutzen ez badituzte ere, arduradunek orain arteko esperientzietan oinarrituta ikusi dute hainbat arlotan dituela onurak.

Jatorri eta oinarri erabat naturalak dituzte proposatzen dituzten tratamenduek eta, horregatik, naturaren erritmoen arabera egiten dute lan. Eta zer esan nahi duen horrek? Erleek, naturak bezala, goraldiak eta motelaldiak dituzte; negu garaian natura geldotzen den bezala gelditzen dira erleak ere, eta hila bete horietan ezingo lukete zerbitzurik eskaini. Hori horrela, erabiltzaileek zerbitzua erabiltzeko aukera izango lukete apirilaren amaiera edo maiatzaren hasieratik, urriaren erdialderaino; dena dela, nabarmendu dute aldakorra izaten dela urtearen eta sasoiaren arabera.

Arduradunek egiten dituzten gomendio guztiak esperientzian oinarritzen dituzte, eta ez euren bakarrik. Kontatu dutenez, badira antzeko instalazioak Herrialde Katalanetan ere, eta hango arduradunekin harreman iraunkorra eta estua dute. Horrela, gainerako lekuetako esperientziak eta ezagutzak ere saretzen eta jasotzen dituzte. Aitoritu dute eskaintza ezagutu berritan jendeak pixka bat mesfidantzaz jokatzeko duela, baina behin probatu ondoren gehienek errepikatu egiten dutela, eta, gaitzak edo kasuak edozein direla ere, esperientzia positiboak jasotzen ari dira etenik gabe.

ONGIZATEA

Betiko optika, modernizatuta

Ikusmen eta entzumen osasuna integratzen duen Tolosako Kale Nagusiko optikan eraldaketa eman da urte hasieran; teknologia aurreratua eta arreta pertsonalizatua uztartzen dituen zerbitzu profesionala jaso dezakete bezeroek bertan, urtetan establezimenduak izan duen funtsa galdu gabe.

Negozio tradizional askok duten behar bati erantzuten dio Tolosako Kale Nagusian dagoen Harotz Optikaren eraldaketak: funtsa galdu gabe aurrera egiten jarraitzea. Federópticos Tolosa izatera pasa da establezimendua, eta, honenbestez, bai maila profesionalan bai teknologikoan, gero eta zorrotzagoa den ingurunera egokitu da.

Profesional independenteen kooperatiba da Federópticos, eta Tolosako aurreko arduradunen funtsa mantentzen du: gertutasuna eta zorrotasun profesionala. Talde handi baten babesa edukitzeak gaitasun teknologiko handiagoa ematen die, eta, beraz, bezeroen osasun-arreta optimizatzeko produktu hobek eskaintzeko aukera eman. Berme handiagorekin, zerbitzu maila altuagoa ematen dute orain.

Azken belaunaldiko teknologia erabiltzen dute diagnostiko zehatzagoak eta pertsonalizatuagoak egiteko. Gaur egun, optikoen lana ez da soilik bista graduatzea, baizik ea ikusmen-sistemak nola funtzionatzen duen ulertzea. Horretarako, besteak beste, adimen artifizialeko aplikazioak erabiltzen dituzte, eta horiekin, ahalik eta gehien aprobetxatzen dituzte dauzkaten baliabideak eta ezagutzak.

Federópticos Tolosan ez dituzte soilik lenteak saltzen, erabiltzaileari egokitzten dizkiote, haren bizimodua, erabilerara distantziak, jarrera, fisionomia eta behar zehatzak kontuan hartuta. Berdin egiten dute ukipen-lenteekin ere, eta begi bakoitzera egokitutakoak eskaintzen dizkiote bezeroari.

Nekea, begien lehertasuna edo miopiaren hazkundea dira herritarrek dituzten arazo ohikoak gaur egun, eta pantailen erabilerak arazo horiek areagotu egin ditu. Horregatik, Federópticos Tolosan ikusmen-terapia ere lantzen dute, errendimendu bisuala hobetzeko tratamendua, alegia. Gainera, orain, entzumena ere integratu dute optikan. Entzumen azterketak, audifonoen egokitzapenak, eta jarraipen pertsonalizatuak egiten dituzte zentroan urte hasieratik.

Garapen teknologikoa handia izan da arlo honetan. Gaur egun, audifono diskretuekin egiten da lan: ia ikusezinak izaten dira, soinu-kalitate handikoak eta erabiltzaile bakoitzari egokitutakoak. Badira ikusten ez diren audifonoak, ingurunearekin konektatzeko aukera ematen dutenak, eta protesia-



Tolosako Kale Nagusian dagoen optika eta audiologia zentroa barrutik. ATARIA

ren estigma gainditzen laguntzen dutenak. Soluzioak emateko bezainbeste lan egiten dute Tolosako egoitzan prebentzioan. Urtean ikusmen-azterketa bat egiteko gomendioa luzatzen dute profesionalak, aurretiazko arazorik ez badago behintzat. Berdin entzumen errebisioekin ere; prebentzio gisa, pertsona guztiek euren entzumen egoera aztertu beharko lukete, askotan, belarri-barneko zerumen pilaketa bezalako oztupo sinpleek entzumen sistemaren errendimendua murrizten baitute.

Arta pertsonalizatua

Askotariko profiletako bezeroekin egiten dute lan Tolosan, baina arreta berezia jartzen dute haurren -miopiaren kontrola ikas dezaten-; pantailen era-

bileragatik eskakizun handiak dituzten helduegan; eta adinekoengan, ikusmena eta entzumena integratuz.

Federópticos Tolosan azken belaunaldiko teknologia txertatu dute, eta diagnostiko askoz zehatzagoak eta pertsonalizatuagoak egiteko aukera ematen die horrek. Bi zentzumenak modu koordinatuan eta lerrotatuan integratzen laguntzen dute, haurtzaroen zaintza hasita, gero zahartzaroen onurak nabaritu ahal izateko, isolamendutik eta horrek osasunean eragiten dituen ondorio kaltegarrietatik urrunduz.

Baliabide teknologikoak eta ezagutza teknikoak ahalik eta gehien ustiatzea, eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea dute helburu nagusia Tolosako zentroan. Irakaskuntza, egokitzapena eta

jarraipena dira lantaldearen hiru zutabe nagusiak.

Zerbitzu bokazio argia duen, eta etengabeko prestakuntzan diharduen profesional talde kualifikatua topatuko du bezeroak Tolosako Kale Nagusian. Nerea audioprotesistak esperientzia handia du aholkularitza optikoan zein audioprotesikoan; aurretik Hernanin, Erreterian, Irunen eta Andoainen aritu izan da lanean. Laura, berriz, atal optometrikoko zuzendari teknikoa da, eta ikusmen-terapian eta ikusmen baxuan espezializatuta dago, besteak beste. Biak dira Tolosako erreferentziako pertsonak, baina haiekin batera aritzen dira, besteak beste, Beatriz, Aitor eta Leire, Tolosaldeko herritarrei ikusmen eta entzumen osasun onena eskaintzeko helburuz dihardute.

Bezeroei entzutea, haien egoeraren ebaluazioa egitea, proposamenak luzatzea, eta haientzat egokitutako eskaintza egitea dira lanerako dituzten oinarriak. Lantaldearen konfiantza, azalpenetan ematen duten argitasuna eta ongi aholkatu dietenaren segurtasuna nabarmentzen dute artatutakoek.

Tolosarrak eta eskualdeko herritarrek Federópticos Tolosara joan daitezke euren bizi-kalitatea zaintzeko. Profesionaltasunarekin, zintzotasunarekin, gertutasunarekin, berrikuntzarekin, gardentasunarekin eta konpromisoarekin egingo dute topo.

Urte hasieratik zentroak bere posizioa indartu du tokiko nortasuna galdu gabe, eta orain, lehen baino are gaitasun handiagoa du eskualdeko bezeroei zerbitzu integrala emateko.



Tolosako establezimenduko arduradunak denda atarian. ATARIA



Federópticos Tolosa

ALTESA OPTIKA ETA AUDIOLOGIA

Helbidea. Kale Nagusia 12, Tolosa.
Ordutegia.
Astelehenetik ostiralera:
09:30-13:00 / 16:30-19:30.
Larunbatetan:
10:00-13:00.
Webgunea.
federopticostolua.com
Instagram.
[@federopticostolua](https://www.instagram.com/federopticostolua)
Telefono zenbakia.
943 67 05 60



Oinen forma duten oinetakoak

Luma
Barefoot & more

Oinen espazioa, mugimendua eta askatasuna
modu osasuntsuan garatzea laguntzen duten oinetakoak.

San Frantzisko pasealekua 15 • TOLOSA • 602 48 53 04

INSOMNIOA DUZU?

Neuromodulazio ez-inbaditzailea **NESA**



NEUROMODULAZIO EZ-INBADITZAILEA,
INSOMNIOAREN AURKAKO ALIATU GISA

ZURE **LOAREN** KALITATEA HOBETZEN DU



Atsedean hartzen
duzun bitartean



Minik
gabe



Homologatutako
zentroa

- Loaren kalitatea hobetzen du
- Estresa eta antsietatea murrizten ditu
- Min kroniko eta neuropatikoa arintzen du
- Neke muskularra murrizten du
- Hiperaktibitatea murrizten du
- Lesioen berreskuratzea optimizatzen du

ehun #
FISIOTERAPIA

*Zure ongizatea,
gure helburua*



NESAr buruzko
informazioa

 **TOLOSA**

 **633 049 474**

 www.ehunfisioterapia.eus

 [@ehun.fisioterapia](https://www.instagram.com/ehun.fisioterapia)